

ELSN-ko on line sareko katalogoaren mailegu- politika

1.0 bertsioa
2005eko otsaila

Donostia - San Sebastian, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 70 - Fax 945 01 95 34 - e-mail ondarea@ej-gv.es



ELSNko sarearen mailegu-politika¹

Dokumentu honetan ELSNko on line sarerako ezarritako behin betiko mailegu-politika jasotzen da, eta bertako liburutegi guztiei eragingo die.

Haurra (BHA) eta heldua (AHE) irakurle-motak

Mailegu-politika hau **Heldu (AHE)** eta **Haur (BHA)** motako irakurleei zuzenduta egin da. Arau orokor gisa, honako jarraibideak segiko dira:

Mailegu-kopurua

Liburutegia / Sukurtsala

Irakurle bakoitzak bere liburutegitik edo sukurtsaletik gehienez ere 6 dokumentu hartu ahal izango ditu: 3 monografia eta 3 material berezi (bideo, disko, CD-ROM...)

Sarea

Erabiltzaileak sareko liburutegietatik gehienez ere 16 dokumentu hartu ahal izango ditu, honela banatuta: 8 monografia eta 8 material berezi. Horrek esan nahi du erabiltzaileak bere ohiko liburutegitik edota sukurtsaletik har ditzakeen 3 monografia hartu baditu, oraindik sareko gainerako liburutegietatik beste 5 monografia eraman ahal izango dituela.

Mailegualdia eta berritzealdia

1) Mailegualdia hauxe izango da:

- **Monografiak.** 15 egun.
- **Material bereziak.** 7 egun. Horretarako kontuan izan da material mota honen ezaugarriak: batetik, gehienetan kontsultatzeko denbora gutxiago behar dela, eta, bestetik, liburutegi txiki askoren funtsen tamaina txikia.

2) Berritzealdiak hauxe izango dira:

- **Monografiak.** Berritzealdia 15 egunekoa izango da. Monografia erreserbatuta egonez gero, dokumentua **ezin izango da berritu.**
- **Material bereziak.** Berritzealdia 7 egunekoa izango da. Material berezia erreserbatuta egonez gero, dokumentua **ezin izango da berritu.**

¹ Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barne dauden liburutegien mailegu-politika 2004ko otsailaren 18an egin zen jarraipen bileran adostu zen, eta 2004ko maiatzaren 19an egindako bileran berrikusi zen.

- 3) *Zigorrak*: maileguaren epeak betetzen ez dituen erabiltzaileak atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik egun bateko zigorra jasoko du, gehienez ere zigorra 30 egunekoa izango da eta ELSNko sare osorako. Dokumentuak berandu entregatzen dituzten irakurleei dagokionez, mailegatzan jarraitzeko ahalmena izango du liburutegi bakoitzak, sistemak maileguarekin jarraitu nahi dugun galdetzen baitu.



- 4) *Mailegu eskaerak*: irakurle helduek eta haurrek mailegu eskaerak egin ditzakete bai ohiko liburutegian edota sukurtsalean bai Interneten, web opac-aren bidez. Irakurle bakoitzak gehienez ere bi dokumenturen eskaera egin ahal izango du eta bi egun izango du dokumentuak jasotzeko. Bertako funtsa ataleko aleak ezingo dira maileguan eskatu.
- 5) *Erreserbak*: irakurle bakoitzak gehienez ere bi dokumentu erreserbatu ahalko ditu, liburutegian bertan edota Interneten, web opac-aren bidez. Erreserbaldia 510 egunekoa izango da monografientzako eta 180 egunekoa material berezientzako. Dokumentuak jasotzeko epea bi egunekoa izango da; epe hori igaro ondoren interesatua ez badoa liburutegira dokumentuaren bila, erreserba automatikoki anulatuko da.

Irakurle-moten eta ale-moten arteko erlazioak

ELSNko on line sareko katalogorako ezarritako mailegu-politikan aurreikusita dago haurrek helduentzako dokumentuak maileguan hartzea; hortaz, liburuzain bakoitzaren esku egongo da maileguan hartzen uztea ala ez.

IRAKURLE-MOTA	ALE-MOTA		MAILEGATU DAITEKE
AHE Heldua	AMO	Monografiak-Helduak (M)	BAI
	BMO	Monografiak-Haurrak (M)	BAI
	HIK	Ikus-entzunezkoak-Helduak (M)	BAI
	IIK	Ikus-entzunezkoak-Haurrak (M)	BAI
	KOF	Ordenagailuko fitxategiak-Helduak (M)	BAI
	LOF	Ordenagailuko fitxategiak-Haurrak (M)	BAI
	NEN	Soinu-grabazioak-Helduak (M)	BAI
	OEN	Soinu-grabazioak-Haurrak (M)	BAI
	QBL	Bertako funtsa (M)	BAI

IRAKURLE-MOTA	ALE-MOTA		MAILEGATU DAITEKE
BHA Haurrak	AMO	Monografiak-Helduak (M)	BAI
	BMO	Monografiak-Haurrak (M)	BAI
	HIK	Ikus-entzunezkoak-Helduak (M)	BAI
	IHK	Ikus-entzunezkoak-Haurrak (M)	BAI
	KOF	Ordenagailuko fitxategiak-Helduak (M)	BAI
	LOF	Ordenagailuko fitxategiak-Haurrak (M)	BAI
	NEN	Soinu-grabazioak-Helduak (M)	BAI
	OEN	Soinu-grabazioak-Haurrak (M)	BAI
	QBL	Bertako funtsa (M)	EZ

Interneten erabilera

ELSNko sareko irakurle helduek eta hurrek beraien ohiko liburutegi edota sukurtsaleko dokumentuak berri, eskatu edota erreserbak egin ahal izango dituzte webaren bidez, horretarako erakusmahaiak ireki dira. Oraingoz, sareko gainerako liburutegietan ezin izango da eskaerarik edota erreserbarik egin.

KODEA	DESKRIBAPENA	MAILEGU-POLITIKA					
		Mota	Gehienezko ale kopurua		Mailegualdia	Berritzealdia	Zigorra
			Lib./S uk.	Sare osoa			
AMO	Monografiak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	15 egun	15 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
BMO	Monografiak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	15 egun	15 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
CMO	Monografiak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
DER	Erreferentzia-Helduak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
EER	Erreferentzia-Haurrak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
FAS	Argit. seriatuak-Helduak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
GAS	Argit. seriatuak-Haurrak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
HIK	Ikus-entzunezkoak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	7 egun	7 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
IIK	Ikus-entzunezkoak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	7 egun	7 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
JKK	Ikus-entzunezkoak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
KOF	Ordenagailuko fitxategiak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	7 egun	7 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
LOF	Ordenagailuko fitxategiak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	7 egun	7 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
MOF	Ordenagailuko fitxategiak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
NEN	Soinu-grabazioak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	7 egun	7 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
OEN	Soinu-grabazioak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	8	7 egun	7 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
PEN	Soinu-grabazioak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
QBL	Bertako funtsa	MAILEGATU DAITEKE	3	8	15 egun	15 egun	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
RAN	Antzinako funtsa (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
SLI	Literatura grisa (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
UMP	Mapak eta planoak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					

Montehermoso-ko irakurle-mota (MHI)

Montehermoso mediatekako irakurle- eta ale-moten ezaugarri bereziak direla eta, (txartela izateagatik ordaindu beharra, ikus-entzunezko material bereziak, soilik irakurle helduak dituzte...); zentro horretarako berariazko mailegu-politika sortzea erabaki da.

Mediatekatik dokumentuak maileguan hartzeko bertako irakurle txartela egin beharko da; hortaz, **Montehermosoko irakurleei (MHI)** beraienez soilik den mailegu-politika ezarriko zaie. Bestalde, sareko gainerako liburutegietatik dokumentuak mailegatzea nahi dutenean politika orokorra ezarriko zaie.

Ondoren Montehermosoko mailegu-politikaren ezaugarri nagusiak zehazten dira:

Mailegu-kopurua

Liburutegia / Sukurtsala

Montehermosoko irakurle bakoitzak (**MHI**) gehienez ere 6 dokumentu² hartu ahal izango ditu mediatekatik: 3 monografia eta 3 material berezi.

Sarea

Irakurle helduentzat (AHE) ezarritako mailegu-politika orokorra ezarriko zaie.

Mailegualdia eta berritzealdia³

- 1) Mailegualdia hauxe izango da:
 - **Monografiak.** 14 egun.
 - **Material bereziak.** 7 egun.
- 2) Berritzealdiak hauexek izango dira:
 - **Monografiak.** Gehienez bitan berritu ahalko dira. Monografia erreserbatuta egonez gero, dokumentua **ezin izango da berritu.**
 - **Material bereziak.** Monografietan bezala, bitan berritu ahalko dira eta dokumentua erreserbatuta egonez gero, **ezin izango da berritu.**
- 3) **Zigorrak:** maileguaren epeak betetzen ez dituen erabiltzaileak atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik egun bateko zigorra jasoko du; zigorra ELSNko sare osorako izango da.
- 4) **Mailegu eskaerak:** ezingo da maileguen eskaerarik egin ez erakusmahaietan ezta web opac bidez ere.
- 5) **Erreserbak:** irakurleko gehienez ere bi dokumentu erreserbatu ahalko dira, bai mediatekako erakuslehioan bai Interneten web opac-aren bidez. Erreserbatzeko aldia 120 egunetakoa izango da monografientzako eta 60 egunetakoa material berezientzako. Dokumentuak jasotzeko 7 egun izango ditu irakurleak.

² 6 dokumentu horiez gain, Montehermosoko irakurleek 3 aldizkari hartu ahalko dituzte maileguan; baina horrek ez du mailegu-politikan eraginik izango ale gisa ez baitaude alta emanda.

³ Montehermosoko mailegu-politikari buruz ari da.

IRAKURLE-MOTA	ALE-MOTA (Montehermosko aleak)		MAILEGATU DAITEKE
MHI Montehermosoko irakurlea	AMO	Monografiak-Helduak (M)	BAI
	HIK	Ikus-entzunezkoak-Helduak (M)	BAI
	KOF	Ordenagailuko fitxategiak-Helduak (M)	BAI
	NEN	Soinu-grabazioak-Helduak (M)	BAI

Interneten erabilera

Montehermosoko irakurleek (MHI) mediatekako dokumentuak berritu eta erreserbak egin ahal izango dituzte webaren bidez, eskaerarik ezingo dute egin ordea; horretarako, beharrezko erakuslehoak ireki dira. Oraingoz, eta gainerako irakurleentzako bezala, ez da utziko sareko beste liburutegi batzuei dokumentuen eskaerarik edota erreserbarik egiten.

KODEA	DESKRIBAPENA	MAILEGU-POLITIKA					
		Mota	Gehienezko ale-kopurua		Mailegualdia	Berritzealdia	Zigorra
			Lib./ Suk.	Sare osoa			
AMO	Monografiak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	Politika orokorra	14 egun	2tan, beste 14 egunetan	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
CMO	Monografiak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
HIK	Ikus-entzunezkoak Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	Politika orokorra	7 egun	2tan, beste 7 egunetan	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
JIK	Ikus-entzunezkoak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
KOF	Ordenagailuko fitxategiak Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	Politika orokorra	7 egun	2tan, beste 7 egunetan	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik
NEN	Soinu-grabazioak Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	3	Politika orokorra	7 egun	2tan, beste 7 egunetan	Egun 1, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzagatik

Erakunde irakurle-mota

Mailegu-politika hau **erakunde irakurle-motarekin (DER)** erlazionatu beharko da. Arrazoi pragmatikoengatik mota honetako mailegua soilik liburutegiek egin ahal izango dute, kasu gehienetan erakunde, elkarte eta abar horiek herri bertakoak izango dira. Bestalde, sareko gainerako liburutegietan dokumenturen bat eskatuz gero, mailegua egin behar duen liburutegi edota sukurtsalak liburutegien arteko mailegua erabili ahalko du arazoa konpontzeko.

Mailegu-kopurua

Liburutegia / Sukurtsala

Erakundeak 60 dokumentu hartu ahalko ditu aldi berean: horietatik, monografiak edo liburu motako materialak 40 izan ahalko dira gehienez ere, eta, gainerako 20ak material bereziak, gehienez ere.

Mailegualdia eta berritzealdia

- 1) Mailegu mota honen *iraupena* 3 hilabetekoa (90 egun) izango da bai monografientzako bai material berezientzako, mailegua eta itzulketa errazteko xedearekin.
- 2) *Berritzea*: eskaeren bolumena eta maileguaren denbora luzea dela-eta, ez da dokumentuen mailegurik berrituko.
- 3) *Zigorrak*: kolektiboak ez dira zigortuko, hutsegite larria denean izan ezik. Kasu horretan, zigorra kaltetutako liburutegiak ezarriko du.
- 4) Irakurle-mota honentzat ez da aurreikusten maileguen eskaerarik ezta erreserbarik ere.

Irakurle-moten eta ale-moten arteko erlazioak

Erakunde irakurle-motak material mota guztiak maileguan hartu ahal izango ditu, betiere mailegatu badaitezke.

Interneten erabilera

Erakunde motako irakurleek ezingo dute weba erabili dokumentuak eskatu, erreserbatu edota berritzeko.

KODEA	DESKRIBAPENA	MAILEGU-POLITIKA					
		Mota	Gehienezko ale kopurua		Mailegualdia	Berritzealdia	Zigorra
			Lib./ Suk.	Sare osoa			
AMO	Monografiak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	40		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
BMO	Monografiak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	40		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
CMO	Monografiak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
DER	Erreferentzia-Helduak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
EER	Erreferentzia-Haurrak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
FAS	Argit. Seriatuak-Helduak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
GAS	Argit. seriatuak-Haurrak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
HIK	Ikus-entzunezkoak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	20		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
IHK	Ikus-entzunezkoak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	20		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
JIK	Ikus-entzunezkoak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
KOF	Ordenagailuko fitxategiak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	20		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
LOF	Ordenagailuko fitxategiak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	20		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
MOF	Ordenagailuko fitxategiak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
NEN	Soinu-grabazioak-Helduak (M)	MAILEGATU DAITEKE	20		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
OEN	Soinu-grabazioak-Haurrak (M)	MAILEGATU DAITEKE	20		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
PEN	Soinu-grabazioak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
QBL	Bertako funtsa (M)	MAILEGATU DAITEKE	40		90 egun	Ezingo da berritu	Ez da zigortuko
RAN	Antzinako funtsak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
SLI	Literatura grisa	EZIN DAITEKE MAILEGATU					
UMP	Mapak eta planoak (EM)	EZIN DAITEKE MAILEGATU					

Beste liburutegi batzuk irakurle-mota

Liburutegien arteko maileguaren prozedura onartu ondoren, ELSNko on line katalogoaren barne dauden liburutegien artean hedatuko da.